



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

IKASGELA/IRAKURGELAREN ARAUTEGI OROKORRA

- Ikasgela txartelarekin erabili ahal izango da, astelehenetik ostiralera, 16:30-19:00 ordutegian
- 16 urtetik gorako helduek eskatu ahal izango dute txartela. Adin horretatik behera heldu baten ardurapean sartuko dira.
- **Txartel eskaera egiteko, udaletxera jo behar da eta bertan horretarako prestatuta egongo den inprimakia bete behar da arautegia onartzuz.**
- Eskatzaileari txartel bat emango zaio. Hau, 10 € kobratuko da.
- Helburua, ikasgelaren eta bertako baliabideen erabilera egokia bermatzea da. Funtzinamendu hau, hiru hilabetez frogatu eta ondoren berrikusi egingo da.
- Ikasgela/ Irakurgelan isilik egon behar da (ozen hitz egitea ez da batere lagungarria liburutegian dauden beste irakurleentzat). Era berean, haurrak irakurtzeaz aspertu eta aztoratzen direnean, joateko ordua da.
- **MAILEGUAK:** Liburuak hartzeko garaian, irakurleak bere datuak eta liburuaren datuak bete beharko ditu horretarako jarriko diren orrietan. Liburua itzultzen denean ere, apuntatu behar da itzuli dela.
- **EPEA: Liburuak itzultzeko epea, 20 egun izango dira.(Gehienez)** Liburuak itzultzean horretarako jarriko den saskitxoan jarri, arduradunak jarriko du berriro bere lekuan.
- **LIBURUTEGI ARTEKO MAILEGU ZERBITZUA:** Beste liburutegietan dauden liburuak ekartzerik nahi izanez gero email bidez (kultura@olaberria.eus) edo telefonoz egin daiteke eskaria (943881434). Liburua iristen denean emailez edo telefonoz abisatuko zaio erabiltzaileari, bere bila joan dadin.
- Altzariak, ekipoak eta funtsa (liburuak, DVDak eta abar) ezin dira tokiz aldatu, hondatu edo behar ez bezala erabili. Norbaitek zerbait hondatzen badu, konponketa ordainduko du.
- Ez dago telefono mugikorra erabiltzerik (ezta jolasteko ere); itzalita edo soinurik gabe eduki behar da. Halaber, ezin da irudirik grabatu edo argazkirik atera.
- Animaliarik ezin da sartu, txakuritsu-gidariak izan ezik.
- Ezin dira irakurgelak erabili eskulanak egiteko (guraize, kola eta abar).



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

○ **Ordenagailuak erabiltzeko:**

- Liburutegian 3 ordenagailu egongo dira. Beraren funtzioa edonork une konkretu batetan ordenagilua behar izan ezgero, bere eskura izatea da. Une berean pertsona batek baino gehiagok behar izan ezker ordenagilua, gehienez **ORDU ERDI** egoteko aukera izango du.
- Ordenagailuaren funtzionamendua bermatzeko debekatuta egongo da norberak programa berriak sartzea, beti ere aurretik baimena eskatu gabe bada.
- Ordenagilua ezingo da jolasteko erabili.
- Ordenagailuen erabilera ez bada egokia, udalak zerbitzua kentzeko erabakia har dezake.

Arautegia behin baino gehiagotan urratzen duenari liburutegiko txartela kendu edo, bolada baterako, ikasgelarako sarbidea debekatuko zaio.

ESKAERA

NI, _____(Izen Abizenak), NAN ZENBAKIA _____

ADINA _____ e-mail: _____DUENA

AURREKO ARAUTEGIA ETA BETEBEHARRAK IRAKURRI ETA ONARTZEN DITUDALA

ADIERAZTEN DUT

Olaberrian, 2016eko.....ren.....an

SINADURA



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)